

Amodio gutunak oinordetzan



Amodio gutunak oinordetzan

Jatorrizko izenburua: *Lettres d'amour en héritage*

Egilea: Lydia Flem

Itzultzailea: Joxan Elozegi

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

"Hitz gehiegi nuen haientzat, hitzean hain motz geratuak ziren gurasoentzat", halaxe esan zigun Lydia Flemek bere aurreko eleberrian, *Nola hustu nuen gurasoen etxea* izenekoan. Hitzean motz geratutako haiek idatzita utzi zituzten, ordea, haien arteko harreman-gutunak eta horien azterketak eta iruzkinak osatzen dute aipagai dugun eleberria. Aztertzen eta iruzkinak egiten hasi aurretik zalantza sortzen zaio ea zenbateraino duen eskubidea gutun haiek zabaltzeko, irakurtzeko... Zalantza horren erdian, gurasoak geure bizitzan hartzen duten lekuaz eta garrantziaz egiten du gogoeta. Presentzia handia du psikoanalisiak liburu osoan zehar, bai zuzeneko aipamenen bidez bai eta bere iritzi eta gogoetak tartekatzerakoan ere. Ugariak dira, halaber, erreferentzia literarioak. Bi faktore horiek ez ditu, gainera, halako txertakuntza artifizial gisa sartzen eleberrian. Aldiz, atsegingarri egiten dute irakurketa. Bainerik jartzekotan, psikoanaliaren bidetiko gogoetak egiten dituenean erakusten duen orokortzeko joera aipatuko nuke. Argiago esanik, maizegi tartekatzen ditu esaldi biribil eta erabatekoak: "...sortzen garetik gaude bahiturik beste historia baten barruan, gurasoen, aiton-amonen historian, haiek hil baino dezente geroago jaiok izanagatik ere". "...Haur baten begietan, guraso baino ez dira gurasoak". Ez dut esan nahi esaldi horiek egirik ez diotenik, baizik eta gehiago dutela filosofiatik edo psikoanali-saiakeratik literaturatik baino. Eta hori ere ez dut gutxiespenez esaten, lehen esan bezala, oso liburu atsegina baita irakurtzeko.

Gurekin, irakurleokin partekatu nahi izan du Lydia Flemek bere gogoeta, eta estimatzekoa da benetan. Egileak berak aitortzen digu eleberriaren amaiera aldera Voltaireren *Kandido* liburuko esaera bat, Freudek aipatzea gogoko omen zuena: "Geure baratzea landu behar dugu". Hortxe dago, nik uste, eleberri honen funts eta mamia. Bere baratzea lantzen du Flemek liburu honetan: nazien zapalkuntza ankerra pairatu zuten gurasoen isiltasuna ulertzen ahalegindu, gurasoen arteko harreman-gutunak arakaturik haien bizitza ez ezik, berea ere hobeto ulertzen saiatu... bere burua hobeto ezagutzeko pertsona gisa garatu, azken batean. Eta ahalegin hori, bidaia hori, geurekin, irakurleokin, partekatu nahi izan du, eleberri zintzo bezain atsegingarri honen bitartez. Eta euskarazko irakurleoi luxuzko itzulpen baten bidez heldu zaigu, gainera.